

ALTZA PORRU!

2006ko apirila / 20.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01

EHTeREN BATZAR NAGUSIKO ZERTZELADAK

EHTEk joan den **martxoaren 11n** egin zuen Batzar Nagusia Zarautzen, eta guztira **49 bat lagun** bildu ziren. Batzar honetan 2005ean egindakoen balantzea, 2006rako egitasmoak eta zuzendaritza berria aurkeztu ziren. Jarraian Aristerrazun egin zuten bazkaria eta 77 lagun elkartu ziren. Urtean behin egiten den batzarra da eta bazkide guztiak daude gonbidatuta.

Iazko urteari dagokionez, Trikitixa Elkartek balantze positiboa egin zuen. **Dokumentazioaren alorrean, irakaskuntzan eta hedaketan** hainbat aurrerapen egin da, eta aurrera begira ere bide horretan jarraituko da; alor horietako bakoitzari arreta berezia eskainiz. Dokumentazioa dela eta, digitalizazioa eta katalogazioa dira helbururik behinenak, dokumentazio-zentro erabilgarri eta osatua edukitzea baita xedea. Irakaskuntzari dagokionez, trikitixa-eskolekin harremana sendotu egin nahi da, eta, horretarako, trikitixa-eskolen errolda egiteari ekingo zaio. Partiturak argitaratzen ere jarraituko da, eta panderoaren inguruko jardunaldi batzuk ere eskainiko dira, Herri Musikaren Txokoarekin elkarlanean. Azkenik, hedatze-lanetan trikitixari buruzko bi webguneak, eta , osatzen eta eguneratzen jarraituko da.

Oro har, **aurreko urteko ekimenei jarraipena** emango zaie. Soinua paperean bilduman partitura liburu-diskoa kalera-tuko da, Inpernuko Poza trikitixaren IV. Jardunaldiak egingo dira, Nazioarteko Trikitixa Jaialdiak ere izango du lekua, eta Soinuaren Liburutegian 7. alea aterako da.

Bestalde, Batzar Nagusia aprobetxatu zuten **1930. hamarkadan jaiotako trikitilarien lana eskertzeko** ere, eta, beraz, jarraian zerrendatutako hauek izendatu zituzten **ohorezko bazkide**: Tomas Zubizarreta **Zendoia** (1930), Ramon Zubizarreta **Landakanda** (1932), Joakin Errasti **Epelarre** (1933), Seberen Urteaga-Oria **Zumarragako Trikitixa** (1933), Imanol Arregi **Iturbide** (1935), Felix Illaramendi **Errota** (1936), Luis Alberdi **Zabale** (1939) eta Migel Urteaga **Zumarragako trikitixa** (1939). Izan ere, lehenik gabe ez baitugu orainik.



Esan bezala, Trikitixa Elkarteko **lehendari-aldaketa** ere egun horretan bertan baietsi zen, eta gaur egun lehendakari **Alaitz Telletxea** trikitilari oiartzuarra da, Joseba Tapiari lekukoa hartuta. Hiru urterako kargua da, baina ez jakin. Laugarren lehendakaria izango da, Esteban Larrañaga, Gema Sistiaga eta Joseba Tapiaren atzetik. Batzorde berrian lagun hauek arituko dira lanean: **Alaitz Telletxea** (lehendakaria), **Gema Sistiaga** (lehendakariordea), **Juanjo Manterola** (diruzaina), **Agurtzane Aizpuru** (idazkaria), eta **Joseba Tapia** eta **Mikel Markez** (bokalak).



bazkideei oharra

Bazkide zaren hori, gogoan izan apirilean kobratuko dizugula bazkide izatearen kuota, 20 euro. Beste norbaitek ere bazkidegata egin nahiko balu, sartu helbidean edo Trikitixa Elkartera jo.

UDABERRIKO TRIKITIXAREN LORALDIA

Udaberrian txori-kantua ez ezik, trikiti-doinuak ere entzungo dira nonahi. Hona hemen horren erakusgarri, hainbat aukera:

MARKINAN, EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA EGUNA

Markina-Xemeingo Trikitixa Eskolaren 20. urteurrena ospatzeko, **apirilaren 30ean**, igandea, Euskal Herriko Trikitixa Eguna egingo da, Bizkaiko herri honetan. Markina-Xemeingo Trikitixa Eskola eta Bizkaiko Trikitixa Elkarteak dira antolatzaileak. Egitaraua bete prestatu dute, gainera. Hona hemen:

- **11:00etan:** Salda, txorizo eta edarien banaketa trikitilarietara.
- **11:30etan:** Kalejira herrian zehar.
- **13:00etan:** Eszenatokian taldekako saioa.
- **14:30etan:** Herri bazkaria.
- **16:30etan:** Markina-Xemeingo Trikitixa Eskola sortu zuten irakasleei omenaldia: Iñaki Zabaleta, Kepa Junkera, Aitziber Canovas eta Olaiz Zabala.
- **Ondoren,** bertsolariak: Iratxe Ibarra eta Gorka Ostolaza.
- **18:00etan:** Erromeria: Tapia eta Leturia.
- **22:00etan:** Kontzertua: The Solanos (Uhagon kulturgunean)

Bazkaritarako txartelak 10 euro balio du, eta gogoan izan apirilaren 12a baino lehen eskuratu behar dela txartela. Horretarako, jarri harremanetan **Joseba Andoni Urrutiarekin** (652701663).

DEBAGOIENAN, II. TRIKITIXA EGUNA

Maiatzaren 6an, larunbata, izango da **Debagoienako II. Trikitixa Eguna**. laz ospatu zuten estreinakoa, Arrasaten, eta aurreten, berriz, **Aretxabaletako Leizarra Musika Eskolak** hartu du jaia prestatzeko **lekukoa**. Guztira 350 bat ikasle dabilta 9 trikitixa-eskoletan banatuta, eta, jai honen bidez, guztiak bildu eta elkar ezagutzea nahi dute. Maiatzaren 4an, bezperan, atzoko eta gaurko trikitixa gai hartuta, **mahai-ingurua** izango da, eta larunbateko egitaraua, berriz, hau da:

- **11:00etan:** ongietorria Debagoienako trikitilari eta pandero-jotzaileei, eta hamaiketako
- **11:30ean:** Kalejira
- **13:00etan:** Jaialdia trikitilarien eskutik
- **14:30ean:** Bazkaria herriko plazan. Eguraldiak lagundu ezean, pilotalekuan
- **17:30ean:** Txalaparta
- **18:00etan:** Trikitizio
- **22:00etan:** Kepa Junkera

ELGETAREN MENDEURRENEAN, HAINBAT EKITALDI

Otsailaren 10ean, bizi izan balitz, Jazinto Rivas *Elgetak* (1906-1964) **100 urte beteko** zituen, baina gazterik joan zitzaigun, 58 urterekin. Bera izan zen soinu irakasten hasi zen **lehen trikitilari profesionala**. Antonio Aranaga *Auntxa*, Faustino *Azpiazu Sakabi*, Juan Garate *Maltzeta*, Eleuterio Tapia, Balentin Aldalur *Zialtzeta*, Higinio Zabaleta, Joakin Errasti *Epelarre*, Juanito Tapia eta Iñaki Garmendia *Laja* izan zituen ikasleen artean. Gaur egungo trikitixa instrumentua ere berari zor zaio. Berak erantsi zizkion bi botoi lehendik zegoen soinu txikiari. Horrela, eskuin eskuan 21 botoi izatetik 23 izatera pasatu zen.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak lehen trikitilari profesionalaren mendeurrena ospatzeko, **hainbat ekitaldi** antolatu ditu. Hasteko, **maiatzaren 11n** Soinuaren paperean Elgetaren **partiturekin osatutako liburu-diskoa** kaleratuko dute. Lehenengo alea Gelatxori, Manuel Soduperi, eskaini zaio eta bigarrena Elgetari. **Ekainaren 10ean** aurkeztuko dute **Gelatxoren partitura liburu-diskoa**, Elgoibarren. **Maiatzaren 20an**, berriz, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, liburuaren aurkez-

pena eta **jaialdia** izango dira. Bukatzeko, **Inpernuko Poza Trikitixa IV. Jardunaldiek** ere Elgeta izango dute **gogoan, irailleko lehen astean**.

Hona hemen trikitilariari buruz **idatzitakoaren muestra**:

- **Elgeta.** Joxean Agirrek 1995eko Irun Hiria Literatur Saria irabazi zuen lan honetan.
- **Elgeta. Sasiaren sustraiak biografian.** Trikitixa Elkarteak 2001ean argitaratua. Liburu honekin batera, Pepe Andoainek Elgetari grabatutako 14 piezaz osatutako diskoa ere kaleratu zuen Elkarteak.
- **Iker Goenagak** kantu bat eskaini zion: **"Elgeta nobela bat da, Elgeta kantu bat da, bizitza konkretu bat ere bada Elgeta, bere musikarekin, bere isilaldiekin"**.




PIRININÉS-PIRINÈUS-PIRINEUS-PIRINIOAK LIBURUA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak **Pirinioetako lau herrialdeetako kantu eta dantzen** liburua osatu du. Hain zuzen ere, **Aragoiko, Okzitaniako, Herrialde Katalanetako eta Euskal Herriko** kantu eta dantza adierazgarrienak bildu dituzte lan honetan. Oro har, erromeria eta katurako ezinbestekoa den errepertorioa bildu da. **Herrialde bakoitzak 15 kanta** aukeratu ditu. Joan den **martxoaren 24an aurkeztu** zuten Donostiako Udal Liburutegian. Liburua aurkezteko prentsaurrekoaz gain, **martxoaren 25ean Aian eta 26an Ezpeletan, topaketa** batzuk egin. Aian goiz eta arratsalde 23 lagun bildu ziren. Herrialde bakoitzak bere errepertorioa, soinuaren egoera, funtzio soziala, jotzeko berezitasunak eta abar aurkeztu zituen. Ezpeletan igande goizean 60 lagun bildu ziren.

Nabarmentzekoa da, bestalde, egitasmo honen bidez, **hizkuntza-aniztasuna** ere irudikatu nahi izan dela. Horretarako, kanta bakoitzak aurkezpen txiki bat izango du sei hizkuntzetan: aragoieraz, okzitaniaraz, katalanez, euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz. EHTE arduratu da egitasmoa bultzatu eta koordinatzeaz. Koordinazio artistikoa, berriz, **Carles Belda** katalana izan dute bidelagun.





Iker Goenaga: AMORRUA

Iker Goenagaren hirugarren diskoak **folka eta modernotasuna** batzen ditu, eta Angel Unzu gitarra-jotzaileak ekotzi du. Trikitilariak berak idatzi ditu hiru abestiren hitzak, eta gainerakoetan, **Joseba Sarrionandiaren, Koldo Izagirrenen** eta **Gartxot Unsain gaztearen hitzak** musikatu ditu. Tartean, **Koldo Izagirrerri eskainitako** abesti bat ere bada: **Metxa (Izagirretar bati)**. Abesti instrumentaletako bat, berriz, Joseba Tapiarekin batera sortutakoa da.

Iker Goenagak (soinu txikia, ahotsa eta panderoa) **Beñat Barandiaran (gitarra akustikoa), Iban Gurrutxaga (gitarra elektrikoa), Mikel Atxega (baxu elektrikoa) eta Iñigo Egia (perkusioa)** izan ditu **taldekide**. Beste musikari batzuek ere parte hartu dute, ordea: Oskorri taldeko Xabier Zebriok eta Josu Salbidek, Alaitz Telletxeak eta Mikel Markezek. Hala, trikitia biolinarekin zein albokarekin uztartuta entzun daiteke. Gainera, teknologia berriei ere bide eman die trikitilariak, ordenagailuaren bidez. **Amorrua**, horixe du zizurkildarrak trikitixa jotzeko, **izugarritzko gogo**a.



Kupela taldea: GAU GIRO

Kupela taldea Urola bailarako **Zabale (trikitixa), Larrañaga (panderoa, ahotsa) eta Berastegi (perkusioa)** hirukoteak osatzen dute. Erromerietan profesionalak ditugu, eta maisuki uztartzen dituzte Larrañagaren bertsoak eta "betiko" trikitixa. Elkar argitaletxearen bidez atera dute lan hau, eta lagun hauek izan dira parte-hartzaileak: Xabier Alberdi **Zabale** (soinu txikia), **Angel Larrañaga** (panderoa, ahots nagusia), Juan Ezenarro **Berastegi** (egurrak, zintzarria), **Iker Allur** (soinu txikia), **Bihotz Gorospe** (ahotsa), **Andoni Larrañaga** (panderoa) eta **Fernan Irazoki** (bateria, perkusioa).

Disko honen bidez, **erromeriaren izpiritua berpiztu** nahi dute. Sagardo onaren antzera, Kupela taldeak musika bizia eta alai dakarkigu: **pasodoblea, boleroa, runba, balsa...** Betikoak diren generoak, Anjel Larrañaga kantari-bertsolariaren kantaera bixiarekin uztartuta. Hamalau pieza guztira, elkarrengandik hurbil, gau giroko fantasiaren ilusioan, gozatu ahal izateko.



Korrontzi: KORRONTZI

Korrontzi folk taldea **Agustin Barandiaran** (trikitixa eta ahotsa), **Mikel Romero** (mandolina, gitarrak eta koroak), **Ander Garzia** (baxua eta koroak), **Iker Lope de Bergara** (alboka, whistle, txistua, txirula, karamiloa, flauta eta koroak) eta **Pedro Martínezek** (bateria eta perkusioa) osatzen dute. 2004an sortu zuten taldea, eta beren lehen lan honekin **trikitilari zaharren bizimodua** eka-ri nahi dute gogora.

Akordeak eta melodiak Agus Barandiaranek eta Mikel Romerok osatzen dituzte, eta, beren doinuak direla medio, hainbat giro, lurralde eta herri batzen dituzte. **Trikitixa eta mandolina** dira **gidari**, baina gitarra, alboka, whistle, kajoia, baxua, bateria, txistua, karamiloa eta tankerako instrumentuak ere jotzen dituzte. Oro har, beren ikuskizunetan **musika eta irudia** uztartzen dituzte, eta Korrontziren lehen lan honetan ere horixe dago oinarrian, abestiak eta irudiak. **Nubenegra disketeak** kaleratu du.

etorriko dira berriak

Bittor Gurrutxaga *Otola* (1919-2006)



Usurbilgo Trikitilari Eguna (1972-04-16). Sakabi eta Egañazpiri egin zitzaion omenaldian, Otola eserita ageri da Migel Iturbiderek, eta Boni Iturbide zutik.

Bittor Gurrutxaga soinu-jotzailea **Azpeitiko Otola baserrian** jaio zen, hortik dator- kio goitizena. Sakabi eta Auntxaren belau- naldikoa zen, baina ez zuen, haiek bezala, diskorik grabatu. Joxe Mari Iriondok Migel Iturbiderek ingandako grabazio batzuk baino ez ditugu. Bitan parte hartu zuen **Euskal Herriko Trikitilari Txapelketan, 1973an eta 1974an**, bietan Boni Iturbiderek. Jendau- rreko azken agerraldia, berriz, **2004an** izan zuen, **EHTEk omenaldia** egin zionean.

Gehienetan Boni Iturbiderek jotzen zuen, baina oro har, **Iturbidetarrak** izan zituen **pandero lagun**. Oso gazte hasi zen so- inua jotzen, 11 urterekin, eta, handik aurre- ra, erromeriaz erromeria ibili zen. Berak aitortua da gerra aurretik Boni Iturbidek eta berak pasatu gabeko erromeria asko ez dela izango. Goian bego Urola eta kostaldeko erromerietako arima.

Felix Aranzabal *Angiozarko itsua* (1919-2006)

Bergarako Angiozar auzoko An- guleta baserrian jaio zen, eta 11 bat urte zituela hasi zen soinua jotzen. Soinu txikia jotzen hasi zen, anaiek bezala, baina **soinu handiak** egin zuen **ezagun**. Gainera, biolina eta pianoa ere jotzen zituen. Hamaika plaza eta erromerietan aritu zen, batik bat **1960ko hamarkadan**. Jendeak eska- tzen zuena jotzen zuen Aranzabalek. Txapelketa bat baino gehiago ere ira- bazi zuen: 1945ean, Errenteriako Ma- dalenetako txapelketa, esaterako.

Joxe Mari Iriondoren iritziz, parti- tura klasiko eta korapilatsuak gustatzen zitzaizkion gehien, **birtuosismoa** eskatzen zutenak. Bere garaiko beste hainbat soinu-jotzaile bezala, ezin Angiozarko itsuaren diskorik inon topatu, haren gaztaroko garaietan grabazio-sistema urriak zeuden eta. Grabazioren bat izatekotan, Iriondok Loiola Irra- tian grabatutakoren bat egongo da. Goian bego.



Angiozarko itsua, Manuel Sodupe Gelatxorekin

ZESUMA

Alaitz Telletxeari, EHTEko lehendakariari, jasotako hitzak:

• **Trikitixaren egoerari buruz:**

- "Nahiko zaila dago. Euskal kultura, orokorrean, nahiko egoera delikatuana dago. Mundu globalizatu honetan dena aldatzen da azkarregi, eta horrek euskal kulturaren zuzenean eragiten duela uste dut. Baina trikitixa jotzen dugunok, biltzen garenean, aurrera egiteko gogoia eta ilusioa dagoela ikusten dut. Akaso ez dudalako galtzea nahi izango da. Baikortasunaren eta ezkortasunaren arteko zerbait da". (Hitza, 2006-III-19)

- "Azken urteetan trikitixa sartu da lehen sekula pentsatuko ez genuen zenbait partetan, erdal munduan... Trikitixa edozein esparrutara zabaldu da. Badira momentu puntualak eta efektu konkretuak merkatua zabaltzeko balio izan dutenak: zaletuak egon badaude, eta lehen esan bezala, inoiz baino jende gehiago dabil ikasten". (Diario Vasco, 2006-III-20)

- "Publiko berriarentzat baliteke trikitixak landa inguruan-eta zuen betiko funtzio soziala galdu izana, baina horrek ez du esan nahi desagertu denik, ezta gutxiago ere. Baserri giroko herri eta auzo txikietan bizi-bizirik mantentzen dira erromeriak, eta ikusten dugu gormatu tradizionalan mugitzen diren trikitilariak, trikitixa eta panderoa bakarrik darabiltenak. (...) Nahiz eta ez izan diskoak egiten dituztenak bezain agerikoak, martxan daude urte osoan". (Diario Vasco, 2006-III-20)

- "Trikitiak ez dauka aukera ofizialik. Musikene sortu zelarik, aipatu ziren asmo batzuk, baina ez da gauza handirik egin. Kepa Junkerak bi urteko master bat eman zuen. Baina ez da goi mailako ikasketarik antolatu, eta ez erdi mailakorik ere kontserbatorioetan". (Gara, 2006-III-27)

• **Elkarteko lan-ildoei buruz:**

- "Trikiti irakasle gehienak bazkide dira. Horiek in harremanetan jarri eta gure asmoa trikiti eskola guztiak lokalizatu eta ikasleei buruzko datu biltzea egitea da. Trikiti eskolen mapa zehatz bat marraztea da helburua. Gure egitasmoen zabalduerako ere lan hori egina izatea ezinbestekoa da". (Gara, 2006-III-27)

• **Lehendakaritzari buruz:**

- "Trikitixaren munduaren alde egitea interesatzen zait (...). Jendeak Trikitixa Elkartearen babesleku bat bilatzea nahi nuke, profesionalak eta ikasleek nora jo izan dezaten. Elkartearen proiektu guztiak aurrera eraman nahi nituzke, eta beste indar bat hartzea. Ez dut nahi nire izena oroitzea, egindakoak baizik". (Oarsoaldeko Hitza, 2006-III-19)

KALEJIRAN

• **Joseba Tapia** trikitilaria **Real Politik** proiektu berriari buru-belarri murgilduta dago, eta zuzenean kontzertuak eskaintzen ari da. Bestalde, bakar-kako diskoa grabatzen ere ari da, eta **laster** ikusiko du argia lan horrek. Bere **bakarkako laugarren lana** izango da, eta Arkaitz Miner eta Jexux Aranburu musikariak izango ditu lagun.

• EITBren **San Jose eguneko Trikiti Jaialdian Joxe Mari Iriondo omendu** zuten. Besteak beste, Laja eta Landakanda, Astiazaran anaiak eta Juan Mari Beltran, eta Zabale-Larrañaga-Berastegi hirukoa aritu ziren Azpeitiko jaialdian.

• Urriari **Oiartzunen** ospatuko den **Kilometroak 06** festarako abestia bertako **Maidar Zabalegik eta Alaitz Telletxeak** egin dute, eta hitzak, berriz, Jon Martin bertsolariarenak dira. Orain kolaboratzaile bila hasi dira, eta, horretarako ere, herritarrik nahi dituzte, Oiartzungo jendeak parte hartzea baita helburua.

• Trikitixazale zaren hori, trikitixaren oraingo eta lehengo nondik norakoan berri izateko, gogoan izan eskura dituzun bi webgune hauek: www.trikimailua.com eta www.trikitixa.net

GALBAHEA

• **Iñaki Garmendia, Laja, trikitilaria:** "Elgetak lotua jotzen zuen asko. Garai hartako runbak, txotisak, habanerak, tangoak eta pasodobleak jotzen zituen. Oso soinu-jotzaile ona zen, konpletoa. Trikitia ikusgarri jotzen zuen eta, aparte, denetik. Beharbada, Sakabi hobea izango zen gerora. Elgetak berak ere esan ohi zuen onena Sakabi atera zitzaiola". (Gara, 2006-II-10)

• **Enrike Zelaia, akordeoilaria:** "Pena dut eskola sortu ez dudalako (...) Nik egin nuen guztia ez nuen bakarrik egin lau sos irabazteko. Niri betidanik axola izan zait nortasuna. Musikarekin nortasuna eman nahi izan dut, nik izan nituen nortasun arazoak izan ez zitzaizkidan jendeak (...)". (Berria, 2006-III-16)

• **Iker Goenaga, trikitilaria:** "Zortea izan dut trikitilariak ez diren musikarien lana ezagutu dudalako" (...) Nik beti esaten dut disko bat grabatzen dudala aurretik sortutako abestiak ditudanean. Ni ez naiz kantak sortzen hasten disko bat egin nahi dudalako, normalean kantak sortzen ditut eta horien karira diskoak egiten dugu". (Noticias de Gipuzkoa, 2006-III-17)